

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

4509

EBAZPENA, 2023ko irailaren 20koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2023ko urritik 2024ko irailera euskara-ikastaroak emateagatik Euskal Etxeei esleituko zaizkien dirulaguntzetarako deialdia, Zuzendaritza Kontseiluak onartua.

Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzeko apirilaren 20ko 3/2007 Legearen 3.a) letrak helburu hau xedatzen du aipatutako institutuarentzat (aurrerantzean EEI esango zaio): «Euskararen irakaskuntza, ikasketa eta erabilera mundu osoan sustatzea, hura partekatzen duten komunitate guztien ekarpenak errespetatuz». Ildo horretan, aipatutako legearen 4.1.f) artikulua EEIri honako eginkizun hau esleitzen dio: «Erakundearen helburuak betetzera bideratutako jarduerak garatzen dituzten erakunde publiko eta pribatuei dirulaguntzak ematea».

Bestalde, EEIren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuak xedatzen du institutu horren eskumenekoa dela euskara sustatzea eta hedatzea Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo. Halaber, dekretu horrek 19. artikulua 3.b) letran dioenez, institutuaren eginkizunetako bat da munduan zehar euskara darabilten kolektibitateetan euskararen ezagutza sustatzea, gehienbat euskal etxeen bidez. Era berean, dekretu horren 19.2.k) eta 19.3.k) artikuluek EEIren jardunbidetza ezartzen dute «Euskal kulturaren sustapen unibertsalera bideratutako jarduerak garatzen dituzten erakunde publiko eta pribatuentzako dirulaguntzen emakida kudeatzea» eta «Euskararen sustapen unibertsalera bideratutako jarduerak garatzen dituzten erakunde publiko eta pribatuentzako dirulaguntzen konexioa kudeatzea».

Hori dela eta, EEIri dagozkion jardun-eremuekin bat etorritz, interesgarritzat jo da munduko euskal etxeetan euskara-eskolak sustatzeko dirulaguntzak emateko modua arautzea.

2023ko martxoaren 9an, EEIren Zuzendaritza Kontseiluak dirulaguntza-deialdia eta dirulaguntzak emateko oinarritzko irizpideak onartu zituen. Dirulaguntza horiek Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude, zeina Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2021eko otsailaren 18ko Aginduaren bidez onartu baitzen 2021-2024 urteetarako eta sailaren web orrian argitaratuta baitago (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaur-larritza/-/sail-plana/sailaren-dirulaguntzen-plan-estrategikoa-2021-2024>). Ildo horretan, adierazi behar da dirulaguntza hau 2023ko Dirulaguntzen Urteko Planaren barruan ere onartuta dagoela, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2023ko urtarrilaren 26ko Aginduaren bidez, eta Sailaren webgunean ere argitaratuta dagoela (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaur-larritza/-/sail-plana/sailaren-dirulaguntzen-plan-estrategikoa-2021-2024/>).

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Helburua.

Ebazpen honen helburua da argitaratzea 2023ko urritik 2024ko irailera euskara-ikastaroak emateagatik euskal etxeei esleituko zaizkien dirulaguntzetarako deialdia, Zuzendaritza Kontseiluak onartua.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdi honetarako 290.000 euro bideratuko dira, EEIren aurrekontuetan horretarako ezarritako kredituetatik, eta honela banatuko dira:

- 1.– 75.000 euro, 2023ko urritik abendura egingo den irakas-jarduera babesteko.
- 2.– 215.000 euro, 2024ko urtariletik irailera egingo den irakas-jarduera babesteko.

3. artikulua.– Entitate onuradunak.

Ebazpen honen bidez arautzen diren dirulaguntzak euskal etxeek eta euskal etheen federazio eta konfederazioek eskatu ahal izango dituzte (Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko euskal giza-talde eta euskal etxeekiko harremanetarako maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen 2. eta 6. artikuluek ezarritako definizioen arabera), baldintza hauek betetzen badituzte:

1.– Baldintza orokorrak:

a) Eusko Jaurlaritzaren Euskal Etheen Erregistroan inskribatuta egotea eta datu guztiak egunean edukitzea.

b) Ezin izango dute deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzarik lortu, kasuan kasuko zehapenak ezarritako epean, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea berekin dakarren zehapen administratibo edo penalen bat ezarrita dutenek, ezta horretarako desgaitzen duen legezko debekuren bat ezarrita dutenek ere. Halaber, ezin izango dute dirulaguntzarik lortu sexu-diskriminazioa egiteagatik zehatuta dauden erakundeek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoaren arabera.

c) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

d) Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta hura garatzeko araudian ezarritakoa aplikatuko da, oro har.

Bereziki, Ekonomia eta Ogasun Publikoko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan aurreikusitakoaren arabera, beharrezkoa izango da zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea, bai eta pertsona edo erakunde eskatzaileek edo onuradunek eta erakunde laguntzaileek dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorraren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

e) Baldintza horiek guztiak nahitaezkoak dira dirulaguntzen onuradun izateko eta hala izaten jarraitzeko, jasotako dirulaguntza likidatu arte.

2.– Baldintza akademikoak:

a) Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak izango dute jardueraren erreferente (2015eko uztailaren 31ko EHAA, 144. zk.).

b) Ikastaroek gutxienez astean hiru eskola-ordu izango dituzte. Halaber, taldeak osatzeko, gutxienez sei ikasle beharko dira, eta taldeen batezbestekoa gutxienez zortzi ikasle izango da.

4. artikulua.– Eskabideak.

1.– Interesdunek eskabideak modu fisiko edo telematikoan egin ahal izango dituzte:

– Bide presentziala: Deialdi honetako dirulaguntzetara biltzeko eskabideak I. eranskineko eredu normalizatua erabiliz edo www.etxepare.eus web-orrian eskuragarri izango den eredua erabiliz

aurkeztuko dira, EEIren zuzendari nagusiari zuzenduko zaizkio, eta helbide honetara igorriko dira: Andre Zigarrogileen Plaza 1, Tabakalera eraikina, 3. solairua, 20012 Donostia. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Zuzenean bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

– Bide telematikoa: Eskabideak aurrez aurre nahiz elektronikoki izapidetzeko informazioa, formularioa eta gainerako jarraibideak euskadi.eus helbide elektronikoa honetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1238401>

Eskabidearen osteko izapideak helbide honetan egingo dira, bide elektronikoa erabiliz gero: <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Eskabideak aurrez aurre aurkezteko, aurretiazko hitzordua eskatu beharko da.

2.– Eskabideak hilabeteko epean aurkeztuko dira, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3.– Deialdi honen 1. artikuluan adierazitako epean emango diren ordu/talde proposamen zehatza jasoko da eskabideetan. Kontuan izanik euskal etxe guztietan ikastaroak ez direla garai berean antolatzen, dirulaguntzak egoki banatu ahal izateko, eskabideek bereizi egin beharko dituzte 2. artikuluan zehaztutako epe bakoitzerako aurreikusten dituzten ordu/taldeak, hau da, urritik abendura eta urtariletik irailera emango dituzten ordu/taldeak, hurrenez hurren.

Eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztuko dira:

3.1.– Euskal etxearen ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatuko duena ez duela ezarrita dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea berekin dakarren zehapen administratibo edo penalik, ezta horretarako desgaitzen duen legeko debekurik ere, sexu-diskriminazioagatiko zehapenak barne hartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoaren arabera (III. eranskina).

3.2.– Euskal etxearen ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatuko duena beste administrazio publiko edo entitate pribatu batzuetatik jaso dituen laguntzak edo dirulaguntzak bateragarriak direla (IV. eranskina).

3.3.– Euskal etxearen ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, non deklaratu baita euskal etxea ez dagoela sartuta dirulaguntzak edo bestelako laguntzak itzultzeko edo horien ondoriozko zehapenak ezartzeko hasi eta oraindik amaitu gabe dagoen ezein prozeduratan, eta, hala badagokio, amaituta dauden prozedurei dagokienez, obligazioak ordainduta dituela (IV. eranskina).

3.4.– Euskal Etxearen ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duena. (IV. eranskina).

3.5.– Euskal etxearen ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, de minimis laguntzak jasotzeari buruzkoa, hala badagokio (IV. eranskina).

4.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat etorriz, interesdunak ez daude beharturik administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok eginak diren dokumentuak aurkeztera. Horrela, haien kontsulta eta ateratzea Administrazioak egin ahal izango du, interesdunak horren aurka egin ezean. Aurka eginez gero, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu agiriak.

5. artikulua.– Aurkeztutako eskabidearen hutsak zuzentzea.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumenturen bat falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela akatsa zuzentzeko edo aurkeztu behar dituen nahitaezko agiriak aurkezteko.

Era berean, ohartaraziko zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela, betiere aurretiaz ebazpen bat eman eta gero.

6. artikulua.– Dirulaguntzen organo kudeatzailea.

Etxepare Euskal Institutuaren Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honen bidez emango diren dirulaguntzak kudeatzea.

7. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Euskal etxeetako euskaltegiei emango zaizkien dirulaguntzetarako, 13,50 euroko ordu/talde modulua aplikatuko da.

Deialdi honen 2. artikuluan ezarritako zenbatekoa ez bada nahikoa eskabide guztien beharrei erantzuteko, dirulaguntzak hainbanatu egingo dira entitate onuradunen artean.

8. artikulua.– Dirulaguntza ebaztea.

1.– Dirulaguntzak esleitzeko, lehiarik gabeko konkurrentziaren prozedura erabiliko da; EEIko Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko arloari dagokio dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzea eta emango den laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, EEIren zuzendariak ebazpena eman dezan.

Esleipen-ebazpena eskabideak aurkezteko epea amaitu eta bi hilabetera emango da, beranduenez.

2.– Esleipen-ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.a) artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

3.– Ebazteko epea igaro eta jakinarazpenik egin ez bada, eskaera ez onartutzat joko da, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.9 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura. Prozedura amaitzen bada laguntza publikoak jasotzeko desgaitasuna edo itzultzeko betebeharra ezarrita, eta itzulketa ez bada egiten ordaintzeko borondatezko epean, baldintzapean emandako dirulaguntza indargabetu egingo da, onuradun izateko debekua dakarrelako.

9. artikulua.– Dirulaguntza likidatzea.

Ikasturteko behin betiko datu errealei eta diruz lagundutako jardueraren gastuei buruzko ziurtagiriak jaso eta gero egiaztatzen bada ez direla eman aurreikusita zeuden ordu/taldeak, edota ez

bada justifikatzen emandako diru-kopurua, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu egingo da. Horretarako, EEIren zuzendariak likidazio-ebazpena emango du, eta onartutako laguntzen zenbatekoak doituko ditu, proportzionaltasun-printzipioaren arabera.

10. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntzak jarraian azaltzen diren epe eta eran ordainduko dira:

1.– Dirulaguntza-ebazpena eman ondoren, 2023ko urritik abendura arte aurreikusita dauden ordu/taldeei dagokien kopurua ordainduko da.

2.– 2024ko martxotik aurrera, behin 2023ko urritik abendura arte emandako ordu/taldeei eta diruz lagundutako jardueraren gastuei buruzko ziurtagiriak jaso, aztertu eta horiek nahikotzat eta egokitzat jo direnean, 2024ko urtariletik irailera arteko eperako onartutako dirulaguntzaren % 60 ordainduko zaie entitate onuradunei.

3.– Dirulaguntzaren gainerako zenbatekoa, hala badagokio, EEIren zuzendariak egindako likidazio-ebazpenean zehaztuko da, eta entitate onuradunak egin dituen jarduera guztiak behar bezala justifikatu eta agiriak bidali ondoren ordainduko da.

11. artikulua.– Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Ebazpen honen arabera ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu horretarako beste edozein entitatek eman ditzakeen laguntzekin, betiere diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketarik gertatzen ez bada.

2.– Gainfinantzaketa gertatuz gero edo finantzaketa publikorako ezarrita dagoen gehieneko ehunekoa gaindituz gero, laguntza murriztu egingo da, dagokion kopurura doitu arte.

3.– Gainfinantzaketa hori itzulketa-betebeharra ezarrita duten beste laguntza batzuekin batera gertatzen bada, itzuli beharreko diru-kopurua proportzionala izango da, diruz lagundutako jardueraren kostu osoaren gainetik eman den laguntzaren ehunekoarekiko.

12. artikulua.– Justifikazioa.

1.– Dirulaguntzaren entitate onuradunek dirulaguntzak justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute; horretarako, II. eranskinean jasota dagoen justifikazio-eredu normalizatua erabiliko dute, edo www.etxepare.eus web-orrian dirulaguntza justifikatzeko dagoen eredua, informazioa hau bilduta:

a) Dagokion epealdian benetan emandako ordu/taldeen ziurtagiria.

b) Diruz lagundutako jarduerak eragindako gastuen ziurtagiria; gastuak haien izaeraren arabera sailkatuta agertuko dira: irakasleen pertsonal-gastuak, gastu didaktikoak, alokairuak, komunikazioa, argindarra, ura, garbiketa, zergak eta bestelakoak, baldin eta gastu horiek zuzenean jarduerari egotz badakizkioke, betiere dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera. Ziurtagiri horrek zehaztu beharko du gastu bakoitzetik zer ehuneko egotzi behar zaien euskara-ikastaroei. Nolanahi ere, irakasleen pertsonal-gastuak eta gastu didaktikoak osorik egotziko dira.

c) Dirulaguntza jaso den eguneko diru-trukeari buruzko ziurtagiria. Halakorik ezean, egun horretarako argitaratu den truke-indize ofiziala hartuko da erreferentzia gisa.

Egiaztagiria aurrez aurre aurkezteko, aurretiazko hitzordua eskatu behar da.

2.– EEIren dirulaguntza behar bezala justifikatutzat hartzeko, bi baldintza hauek bete beharko dira:

a) Benetan emandako eta ziurtatutako ordu/taldeak deialdiaren ebazpenean zehaztutakoak beste izatea gutxienez.

b) Justifikatutako gastuen baturak dirulaguntzaren zenbatekoa egitea gutxienez, betiere deialdi honen 11. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

3.– Entitate onuradunek EEIren esku utzi beharko dituzte dirulaguntza justifikatzeko bidali dituzten gastuen egiaztagiriak, eta jatorrizkoak entitatearen kontabilitate-artxiboan gordeko dituzte, baliteke-eta EEIk ikuskaritza-lanen bat egin behar izatea. Egiaztagiriak onartzeko, argi eta garbi adierazi beharko dituzte datu hauek: gastuaren kontzeptua eta denbora-eremua, eta dokumentua eman duen entitatearen edo organismoaren izena eta jaso duenarena.

4.– Justifikatu beharreko kopuruak zenbatzeko, dirulaguntza jaso den eguneko diru-trukea hartuko da aintzat. Salbuespen gisa, datu hori lortzea ezinezkoa denean, egun horretarako argitaratu den truke-indize ofiziala hartuko da erreferentzia gisa.

5.– Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. eta 31. artikulua eta hura garatzeko araudia aplikatuko dira.

6.– Agiri horiek epe hauetan aurkeztu beharko dira:

a) 2023ko urritik abendura artekoak, 2024ko otsailaren 15a baino lehen.

b) 2024ko urtariletik irailera artekoak, 2024ko urriaren 15a baino lehen.

13. artikulua.– Entitate onuradunaren betebeharrak.

Ebazpen honetan araututako dirulaguntzen onuradunek betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

a) Dirulaguntza eman den helburu jakinerako erabiltzea.

b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaimahaiari eskatzen duen informazioa ematea, deialdi honen kargura jasotako dirulaguntzen zertarako fiskalizatzeko esleituta dituen eginkizunak bete ahal izan ditzan, bat etorritik azaroaren 11ko 1/1997ko Legegintzako Dekretuak onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginarekin.

c) EEIren esku uztea dirulaguntza justifikatzeko bidalitako gastuen egiaztagiriak, eta jatorrizkoak entitatearen kontabilitate-artxiboan gordetzea, baliteke-eta EEIk ikuskaritza-lanen bat egin behar izatea.

d) Dirulaguntza publikoak jaso direla aditzera ematea; horretarako, Etxepare Euskal Institutua-ren logoa jarri beharko da deialdi honen helburuarekin zerikusia duten jarduera guztietan, arloari dagokionez indarrean dauden legeen arabera.

e) Halaber, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan eta hura garatzeko araudian ezarritakoa aplikatuko da, oro har.

14. artikulua.– Arau-hausteen eta ez-betetzeen araubidea.

1.– Ebazpen honetan edo beste edozein xedapen orokorretan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

2.– Dirulaguntza osoa edo haren zati bat ebazpen honetan aurreikusitako jarduera ez den beste baterako erabiltzea.

3.– Hala badagokio, dirulaguntzaren likidazio-ebazpenean zehaztutako diru-kopurua ez itzul-tzea horretarako emandako epean.

4.– Halaber, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. eta 40.1 artikuluan eta hura garatzeko araudian ezarritakoa aplikatuko da, oro har.

5.– Arauak betetzen ez badira, pertsona edo entitate onuradunak itzuli egin beharko dizkio EEIri jasotako diru-kopuruak eta horien berandutza interesak, hala ezarrita baitago dirulaguntzei buruzko lege orokorraren 40.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Ebazpen honetan araututako dirulaguntzak Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduan adierazitakoaren arabera arautuko dira (EBAO, L 352, 2013-12-24koa); erregelamendu hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Dirulaguntza hauek de minimis izaera dute, hau da, pertsona juridiko nahiz fisiko batek jasoko duen dirulaguntza osoa ez da 200.000 euro baino gehiagokoa izango, hiru zerga-ekitaldietan. Muga hori gainditzen ez duten dirulaguntzek ez dute merkataritza eraldatzeko, ezta lehia-baldintzak desitxuratzeko ere; hori dela eta, ez dira Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikulua aplikazio-eremuan sartzen.

Dirulaguntzaren onuradunak dagokion zerga-ekitaldian eta aurreko bi zerga-ekitaldietan jaso dituen de minimis dirulaguntzen berri eman beharko du, eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, zeren eta egiaztatu behar baita de minimis laguntza berriak ez duela gainditzen adierazitako erregelamenduak xedatutako gehieneko muga.

Betekizun horretatik salbuetsita daude egoitza soziala Europar Batasunetik kanpo duten eskatzaileak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa:

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko: Euskara eta euskal kultura sustatzeko eta zabaltzeko laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute.

Helburua: Etxepare Euskal Institutuak sustatutako laguntzak eta dirulaguntzak eskatzen eta jasotzen dituzten pertsona fisikoen edo pertsona juridikoen legezko ordezkarien zerrenda bat izatea.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da, aplikatu behar diren lege-betebeharrak konplitzeko.
- Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko.

– 3/2007 Legea, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzekoa (2007-05-10eko EHAA, 89. zk.).

Hartzaileak: ez da daturik komunikatuko.

Eskubideak: eskatzaileak eskubidea du datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: web-orri honetan kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/057300-cap2-eu.shtml>

Araudia:

– Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

ID: 0573.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du, eta beronen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokeste interesdunek EEIko Zuzendaritza Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hileko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Donostia, 2023ko irailaren 20a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
IRENE LARRAZA AIZPURUA.

I. ERANSKINA

Etxepareren zuzendari nagusi hori:

..... jaunak/andreak (NAN:; egoitza:),
.....(e)ko euskal etxea edo federazioa (*) (Eusko Jaurlaritzaren Euskal
Etheen erregistroko zenbakia:) ordezkatzeko behar diren lege-ahalak dituenez,
hau

ESKATZEN DU:

Eskabide-orria eta aurkeztutako gainerako dokumentazioa kontuan hartzea, Zuzendaritza Kontseiluak 2023ko martxoak 9an onartutako deialdira aurkeztu ahal izateko. Deialdi horren bidez, 2023ko urritik 2024ko irailera euskara-ikastaroak emateagatik euskal etxeei esleituko zaizkien dirulaguntzak arautzen dira.

Aurkeztutako agiriak:

1. – 2023ko urritik 2024ko irailera emango dituen orduen proposamena:

- a) 2023ko urria-abendua:..... ordu/talde
- b) 2024ko urtarrila-iraila:..... ordu/talde

Guztira ordu/talde

2. - Zehapen administratibo edo penalik ez dueneko erantzukizunpeko adierazpena (III. eranskina).

3. - Bateragarritasun-adierazpenak (IV. eranskina).

(Lekua, data, sinadura eta euskal etxearen edo federazioaren zigilua)

(*) Eusko Jaurlaritzaren Euskal Etheen Erregistroko izena erabili.

II. ERANSKINA

Etxepareren zuzendari nagusi hori:

..... jaunak/andreak (NAN:; egoitza:),
(e)ko euskal etxea edo federazioa (*) (Eusko Jaurlaritzaren Euskal Etxeen erregistroko zenbakia:) ordezkatzeko behar diren lege-ahalak ditu.

Bat etorri Zuzendaritza Kontseiluak 2023ko martxoaren 9an onartutako deialdiarekin, zeinaren bidez 2023ko urritik 2024ko irailera euskara-ikastaroak emateagatik euskal etxeei esleituko zaizkien dirulaguntzak arautzen baitira, hau

ZIURTATZEN DU:

1.- (e)tik (e)ra benetan emandako ordu/talde kopurua/..... izan da (azalpen-agiriak eranstean dira).

2.- Euskara-ikastaroak emateagatik sortutako gastuak hauek izan dira (zehaztu moneta eta ehuneko egozgarria):

- a) Irakasleen pertsonal-gastuak (% 100).....
- b) Gastu didaktikoak (% 100)..... (identifikatu gastua)
- c) Gastu orokorrak, eta haien egozpena (%):

- Alokairuak eta %.....
- Komunikazioak eta %.....
- Argindarra eta %.....
- Ura eta %.....
- Garbiketa eta %.....
- Zergak eta %.....

Gastuak, guztira:

3.- Euskara-ikastaroak emateagatik diru-sarrerak hauek izan ditu euskal etxeak:

- Matrikulak
- Administrazioen dirulaguntzak
- Dirulaguntza pribatuak
- Bestelakoak

Diru-sarrerak, guztira:

4.-(e)koaren(e)(a)n euroko dirulaguntza jaso genuen, eta egun horretako euroaren diru-trukea zen.

5.- Ziurtatutako gastu guztien frogagiriak Etxepare Euskal Institutuaren eskura daude, gure artxiboetan gordeta.

(Lekua, data, sinadura eta euskal etxearen edo federazioaren zigilua)

III. ERANSKINA

..... jaunak/andreak (NAN:; egoitza:),
.....(e)ko euskal etxea edo federazioa (*) (Eusko Jaurlaritzaren Euskal Etxeen erregistroko zenbakia:) ordezkatzeko behar diren lege-ahalak dituenez,

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN HAU EGITEN DU:

- Euskal Etxeak ez du ezarrita dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea berekin dakarren zehapen administratibo edo penalik, ezta horretarako desgaitzen duen legezko debekurik ere, sexu-diskriminazioagatiko zehapenak barne hartuta, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoaren arabera.

- Deialdi honetan jasotako betekizun guztiak betetzen ditu, hori egiaztatzen duen dokumentazioa du, eta Administrazioaren eskura jarriko du, hala eskatzen badio, eta konpromisoa hartzen du baldintza horiek guztiak betetzen jarraitzeko eskubideak irauten duen bitartean.

- Badaki erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango dela dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

....., 2022koaren(a).

(Sinadura eta euskal etxearen edo federazioaren zigilua)

IV. ERANSKINA

..... jaunak/andreak,(e)ko
euskal etxea edo federazioa ordezkatzeko behar diren lege-ahalak dituenez,

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN HAU EGITEN DU:

Bateragarritasun-adierazpenak

- ☐ Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo entitate pribatuen eskutik.
- ☐ Administrazio publiko edo entitate pribaturen bati laguntza eskatu dio, eta hark eman (atal honetako datuak II. eranskinean zehaztu beharko dira).
- ☐ Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza eskatu dio, baina haren erantzunaren zain dago (atal honetako datuak II. eranskinean zehaztu beharko dira).
- ☐ Ez dago sartuta izaera bereko laguntzak edo bestelako dirulaguntzak itzultzeko edo horien ondoriozko zehapenak ezartzeko hasi eta oraindik amaitu gabe dagoen ezein prozeduratan; eta inoiz dirulaguntzak itzultzeko obligazioren bat izan badu, ordaindu du dagokion zenbatekoa.
- ☐ Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ditu.
- Hala badagokio,
- ☐ Azken hiru zerga-ekitaldietan ez du «de minimis» araubidearen mende dagoen dirulaguntzarik jaso.
- ☐ Azken hiru zerga-ekitaldietan «de minimis» araubidearen mende dauden dirulaguntzak jaso ditu. Guztira jasotako laguntzaren zenbatekoaeuro da, eta banakapen hau du:

Urtea	Organismoa	Tramitazioaren egoera*	Zenbatekoa
		Guztira	

....., 2023koaren(a).

(Sinadura eta euskal etxearen edo federazioaren zigilua)

*E= Eskatua; EM= Eman; O=Ordaindua